

Nafarkaria

• ostirala • 1999ko maiatzaren 14a

Egunkaria

Gehigarri honetan

Bera • Ludoteka eta Gazte Txokoa prest.

Jose Luis Alzugarai • «Goiko liga utziko dugu baino Gipuzkoakoan jarraituko dugu».

Orain ehun urteko Nafarroa



• ARTXIBOKOA

Nafarroako Merkataritza Ganberak bere mendeurrena ospatzeko, orain ehun urteko herrialdea islatzen duen erakusketa bat zabaldu du Iruñeko Gotorlekuan. Goldea, igitaia, eskuarea edota idaurra nagusi ziren nekazari gizartera itzuli da Merkataritza Ganbera bere mendeurrena ospatzeko. Aldi berean, mende batean gertatu diren aldaketen lekutza agertu nahi izan du.

Bera ●

Ludoteka eta Gazte Txokoa, prest

Bihar inauguratuko du egoitza Kaxerna aisialdi taldeak

Mendialde osoan dagoen lehendabiziko ludoteka eta gazte txokoa idekiko da bihar.

ASPALDIKO AMETSA ZUTEN Kaxerna aisialdi taldekoek herriko haurrentzako gune bat egitekoa. 1994an euskararen normalizaziorako eta aisialdian zegoen hutsunea betetzeko xedez sortu zuten herriko hiru gazte aisialdi taldea. Ordudanik, makina bat ekintza antolatu dituzte urterik urte, udaleku idekiak eta Udabentura tartean. Baina egoitza berriarekin urrats bat eman nahi dute. Hurrengo larunbatetik aitzinera paratuko dute abian txokoa, Gure Txokoa elkartearen egoitzan. Beheko solairutik sartuko dira haurrak. Orain espazio zabal bat da, eta aitzinera begira tailer moduan paratzeko asmoa dute taldeko kideek. Bigarren solairuan, komunak eta txoko-gela jarri dute. Gela horretan ttikientzako margoketa, erai-kuntza eta jolaserako txokoak paratu dituzte. 3 eta 5 urte bitarteko haurrentzako gu-



Gure Txokoa elkartean izanen da ludoteka. ● MIKEL SAIZ

nea izanen da hori, eta haurrek irudimena lantzeko espazioa izanen da, nagusiki. Hirugarren eta azken solairuan, berriz, joko gela eta egoteko gela daude. Lehendabizikoan mahai-jokoetarako gune zabal bat dago, eta egoteko gela ipuinak irakurtzeko, edo solasean jarduteko prestatua egonen da.

Gazte Txokoa ere bai
Ludotekak 3 eta 12 urte bitarteko haurrak hartuko ditu. Baina espazio bera aprobe-

txatuz, Gazte Txokoa ere izanen da, 12 eta 16 urte bitartekoentzat. Dinamika erabat ezberdina izanen da gazte txokoa. Gazteek, euren adinerako prestatutako jokoez gain, musika aditzeko gunea eta irakurtzeko lekua izanen dute. Begiraleek dinamika markatu beharrean, gazteek eurek aukeratuko dute zer egin eta nola egin. Horrezaz gain, begiraleek bertzelako zerbitzu batzuk eskainiko dituzte, eta batez ere tailerrak eta sormena bultzatu nahi di-

ra. Hala, datorren ikasturtearen hasierarako sexu heziketa tailerra paratu nahi dute abian, eta sor daitezkeen bertze batzuk ere bai. Ikasturtea amaitu artean larunbatetan baino ez da idekiko, 10:30etatik 13:00etara 3 eta 5 urte bitartekoentzat, eta arratsaldeko 15:00etatik 17:30etara 5 eta 12 urtekoentzat. Gazte txoko gisa, aldiz, arratsaldeko 17:30etatik 20:00etara ariko dira.

→ Jon Abril

Bera ●

Herri krosa eta mendi itzulia asteburuan

KIROLARIEK BI HITZORDU DITUZTE asteburu honetan Beran. Lehendabizikoa bihar arratsaldean egingen da: bigarren herri krosa. Toki Ona kiroldegiko ataritik aterako da, eta arratsaldeko 5etan haurrak hasiko dira. 18:30etan nagusien probak hasiko dira, maila guztietakoak, kadeteetatik seniorrak bitarte. Gure Txokoa elkarteak antolatu du proba hau, eta herri krosen aukera zabaltea du xedetzat.

Igandean, berriz, laugarren aldiz egingen da Berako mendi itzulia. Izena Agerra mendi taldearen egoitzan eman behar da. Tenore horretan hasiko da ibilbidea, eta Agerra auzotik Santa Barbarara joanen dira, ondoren Idoiara jaisteko. Bertan bi ibilbide aukeratu ahal izanen dira: gogorrena Labiagan barrena, eta bigunagoa nahi dutentzat zuzenean Idoiatik Lizuniagara. Lizuniagatik Larungo tontorre-raino igoko dira. Iesolan barrena Landagaintaraino joanen dira ibiltariak, eta Ibardinerako bidea hartuko da. Handik Mandela eta Postetan barrena Herriko Etxera jaitsiko da, Agerran bukatzeko. Ibilbidea 6 ordu eta 10 minutu eta 8 ordu eta 20 minutu bitartean egin behar dute mendizaleek.

→ Jon Abril

metropoli forala

FELIPE RIUS



Clint Eastwooden azken filma ikusi ondoren, Jose Antonio Iturri maisuak metropoli foral honetako egunkari batean idatzitako zutabea oraindik gogoan dudala, kazetari zaharren bila abiatu naiz tabernaz taberna. Dena alferrik ordea, desagertu egin dira. Garai batean erredakzioan ez bazeuden -eta ez ziren bertan luzez egoten, zerbaitek etengabe kalera bultzatuko balitu bezala, bagenekien tabernaren batetik hurbil ibiliko zirela, horiek izaten baitira informaziorik onenak lortzeko tokirik aproposenak, batez ere jendeak zaborra etxetik atera eta bidenabar pote bat hartzera doan orduan, edo agian tanatorian izanen zirela hildakoren baten senideei galdezka ahalik eta istoriorik bortitze-na lortzeko ahaleginetan. Aspaldian gertatzen ziren horrelakoak. Duela urte asko, beste historiko bati irakurri diodanez, erredakzioetara iristen hasi ziren

Kazetari zaharrak

ume pijoek izaturik beharbada, ospa egin zuten eta hiriko taberna guztiak hustu ondoren lurra irentsi zuten, deabruak azken urteetan galdutako poker jokaldi guztien errebantxa hartu nahi izan balu bezala. Batzuek uste dute albiste inposibleren baten atzetik joan zirela eta orain, erromantizismoaren atzaparretan erorita, munduan galdutako borroka guztien errepassoa egiten ari direla nonbaiten. Beste lekuko batzuek, berriz, zenbait kazetari zahar enpresa handien kontseiluetan eta boterearen eserlekuetan agertu direla diote, baina horiek ez zaizkit interesatzen; nik besteak aurkitu nahi ditut, mahaiaren kajoi batean whisky botila gordetzen zutenak, lana bukatu ondoren etxerako bidean Tom Waitsen kaset zaharra jartzen zutenak eta gaur egun politikoki batere zuzenak ez diren madarikazioen artean poema pare bat bota zezaketenak. Kazetari zahar horiek hamai-

ka master zituzten umeak iristen hasi zirenean kapela jantzi eta «oraintxe gatoz» esan zuten beren betiko dotoreziaz entzun nahi izan zietenentzat. Geroztik, ohore handiz «gizarteratu» direnak alde batera utzita, inork ez ditu ikusi. Orain ez dago kazetari zaharrik egunkarietan, eta guk, gaurko periodikua leitu beharrean, hemerroteketan bilatzen dugu gaurkotasunaren emozioa, pulitzer saririk gabeko zauri idatzia. Gogoan ditugu Eastwooden pertsonaiak bezala, batzuek zorionez izan ditugun maisuek bezala, Interneten aroa iritsi baino lehenago informazioa eta bizitza kaleko nahiz tabernetako web-guneetan bilatzen zekiten eroak. Egun batean ilobei kontatuko diet ni kazetari zaharrak ezagutu zituzten azken mohikanoetako bat izan nintzela eta haiek harriduraz begiratuko didate. Baina, ba al dago inon kazetari zaharrik?, galdetuko dute.

Mendialdea • Urtebete elkarlanean

Mendialdeko hiru partzuergoak bat eginik dabilta kanpoaldean

Bertako kontuetarako bakoitza bere aldetik ibiltzen bada ere, gure ingurua kanpoan ezagutzera emateko orduan, ahaleginak batu dituzte, eta Nafarroako mendia izeneko mahaia osatu dute.



Baztango mendiak oso preziatuak dira turisten artean.

• MIKEL SAIZ

Joan de hilaren amaieran, Bartzelonan ibili dira Nafarroan turismo alorrean diharduten hainbat lagun, Espainiako Estatuan egiten den turismo feriarik garrantzitsuenan. Eta oso baikor etorri dira, denak. Orain, Bilbora begira dira, atzotik igandea bitartean beste feria bat egiten ari baita bertan. Kataluniako hiriburuan egin zuten modura, Bilbokoan ere batera ariko dira Plazaolako, Bertizko eta Pirinioetako partzuergo turistikoak. Tankera horretan dabilta joan den urte guztian, *Nafarroako mendia*, *Pirinio berdea* izeneko mahaia sortu zutenetik. Maitena Ezkutari Plazaolako Partzuergoak dienez, «ez zuen zentzu handirik gure produktuak kanpora esportatzerakoan bakoitza bere aldetik ibiltzeak».

Helburu berdintsuak zituztela ikusirik, indarrak batu eta marka bera erabiltzea otu zitzaion duela bi urte, baina taldearen egitura ez zen gauzatu duela urtebete arte. Koordinatzaile bat eta zenbait langile aukeratu zituzten, denen arteko proiektuak aurrera ateratzeko. Ezkutariaren arabera, «mahai baten moduan sortu genuen taldea. Eztabaida mahai bat da, non guztiok kezkatzen gaituzten gaiez aritu ahal gaitzekin».

Gaztelania hutsean
Agentzietara bidali dira afit

xak, eta erdara hutsean daude, agentziek, nonbait, hizkuntza hori soilik erabiltzen dutelako. Turismo agentzietan lan egiterakoan errazagoa omen da talde moduan aritzea. «Bestela, nahikoa zaila izaten da. Kontratazioen gaia, esaterako, orain arte, bere kasa egiten zuen turista bakoitzak, etxeko nagusiek. Orain hori erraztu eta kontrolatu ahal izateko bideak jarri ditugu», esan du Maitenak.

Orain arte Plazaolako, Bertizko edo Pirinioetako partzuergoen eskaintza nagusia natura izan ohi da. Talde be-

riarena ere horixe da. «Kanpoko ferietara joaten garenean Nafarroako Gobernuarekin batera aritzen gara, eta haiek erabakitzen dute, azken finean, bere lekua nola banatu. Gehienetan, hiru atal egiten dituzte: gastronomia, kultura eta natura. Gastronomiaren atala, gehienetan, Erriberakoei eskaini ohi diete; kulturarena, Lizarraldekoiei, eta naturarena, berriz, guri. Egia esan, hori da guk dugun produkturik esplotagarriena», gaineratu du Maitenak.

→ Urko Aristi



herri aldizkariak

Edurne Elizondo

Gas naturalaren zain

Gas naturala Bera eta Lesaka ingurura ailegatu da, eta, hain zuzen, Asier Gogorza kazetariak gai horri buruz idatzi erreportaia hartu du **Ttipi-ttapa** aldizkariko azken zenbakiak bere orrialdeetan: «Lesaka eta Bera-ko etxe aunitzetan 2000. urtea baino lehen gas naturalarekin ibiliko dira sukaldeak, ur berogailuak eta kalefakzioak. Gas Navarra enpresak adierazi duenez, bi herrietan gas mota hau jarri nahi duten 400 familia biltzen diren bezain laster hasiko omen dira instalazio lanak. Ez berehalakoan, baina pixkan-pixkan oraingo butano botilak histo-

riara pasatuko dira behin-betikoz, garbiago eta erosoagoa den erregai bati tokia eginez. Garbiagoa, batez ere metanoz osatua dagoelako eta ingurugiroa ez duelako kutsatzen. Erosoagoa, ez baita butaneroa noiz pasatzen den esperoan egon beharko, eta ez dagoelako arriskurik duxaren erdian ur berorik gabe gelditzeko».

«Dena den, gas naturala tuberiak tuberia eskualdeko bertze herrietara eramatea garestia da, garestiegia, eta momentuz enpresa haundien ondoan dauden herriek baka-

rik hartzen ahalko dute etxeetan, Leitzan adibidez. Horregatik, gas propanoa da gainerako herrietan butanoaren alternatiba bakarra».

Ttipi-ttapako artikuluak azaltzen duenez, Lesakan ikusmin handia sortu du gas naturalak: «Gas Navarrak bilkura egin zuen joan den hilabetean Lesakako Herriko Etxean, eta aretoa leporaino bete zen. Guttienez 185 familiarentzat egingen omen da instalazioa, eta izenemateak kopuru horretara ailegatu bezain laster hasiko dira tuberiak sartzeko obrak. Herri guziarendako depositua futbol zelai ondoan ezarriko omen dute».



urdairen
mintzoa

Xabier Larraburu

Eguzki puxka bat

Eguzki boteretsuak gauza orotan marrazten du bere bidea, eta Eguzki erloju bat, azken finean, ibilaldi izugarri horren laburpen bat besterik ez da. Munduan egun bakar batez pilatzen eta korapilatzen diren argi eta itzal infinitoez orratz bakar batera eta plano inklinatu bakar batera mugatzea da. Badira munduan orratzak kopuru neurtezinetan (gu geu barne) itzal kopuru neurtezinak banatzen dituztenak. Itzal mugikorak, gainera. Jainkorik balego, esate baterako, txinaurriek belar ostoen gainetik banatzen dituzten itzaltxo nimitxoekin emango zigun ordu zehatza, eta txinaurritegiaren kaosari begira «bostak eta hogeita bost dira» esango luke, edo «goizeko hamaikak hogeit gutxi dira». Jainkorik balego belar hosto bakar batekin aski luke. Baina jainkorik ez dagoenez eguzki erlojuak asmatu behar izan ditugu (beste gauza askoren artean) infinitoa mugatzearen. (Bikotekideak eta maitasuna bera ere, bururatzen zait, aukera infinitoa mugatzearen sortu ditugun modu berean). Eguzki mugikor eta boteretsu hori gure etxean ere sartzeko da, doike. Etxe alokatu hau argitsua dugu. Ez da batere normala, Iruñeko Alde Zaharreko etxe gehienek kobazuloa diruditelako. Aldamene-ko etxe gehienetan eguzkiaren argiak ez du deus ere argitzen. Itzala da nagusi. Eta itzal iraunkor horrekin ez dago eguzki erlojurik. Gurean, jainkoari eskerrak!, eguzkia punta bate-tik bestera sartzeko da. Orain arratsaldea da. Etxeko salan dagoen zurezko mahai haundiko izkin batean eguzkiak jotzen du. Argiak, benetako argi txorrotada horrek, arratsalde guztia behar izan du mahai guztia gurutzatzeko eta orain mahaia-zen azken izkinatxo hori, bailara ospelen gainetik mendien puntak argitzen diren antzera, argitzen da, urre kolorez, eguzki erloju baten azken ordua balitz bezala. Eta urrezko azken ordu hori katus gainezka dago, katus bete-betea, mahai gainean etzanda dagoen katusaren buruaz bete. Begiz eta bibotez bete. Eta ematen duen itzala gerora etorriko den gauaren lehendabiziko orduaren aldarrikapena da. Jainkoa banintz bibote hoi itzala seinalatuz «bederatzia eta bi minutu eta hamasei segundu» esango nuke.

Golde eta gurdi graiak

Nafarroako Merkataritza Ganberak bere mendeurrena ospatzeko orain ehun urteko herrialdea islatzen duen erakusketa zabaldu du Iruñeko Gotorlekuan

Nafarroako orain dela ehun urteko gizartea islatzen duen erakusketa zabaldu berri dute Iruñeko Gotorlekuko Arma Aretoan. Goldea, igitaila, eskuarea eta idaurra nagusi ziren nekazari gizartera itzuli nahi izan du Merkataritza Ganberak bere mendeurrena ospatzeko. Halaber, mende batean gertatu diren aldeketen eta orduko izpirituaren lekukotza eskaini nahi izan du.

Orain dela ehun urteko Nafarroa gaur egungoaren aldean oso ezberdina zen.

I Nekazari gizartea zen nagusi, eta biztanleriaren %70 baino gehiago nekazaritza guneetan eta nekazaritza bizi zen. Deus gutxi behar zuten bizitzeko, kontsumo maila oso oinarritzkoa zelako. Nekazari gizartea, gainera, oso tradizionala zen, ez zuelako aukerarik izan bere inguruetatik, ez eta Nafarroatik kanpo ateratzeko. Hiriburua zen guñe garrantzitsuena. Hala ere, Carmen Erro erakusketa prestatzen ibili den historialariak dioenez, Nafarroa ezberdintasun sozial asko zituen gizartea zen duela mende bat. «Hiriburuan alde horiek oso nabarmenak ziren. Garai hartako gizartearen piramideak behealde zabala zuen, baina gora hurbildu ahala medartzen zihoan, eta familia bakar batzuek zuten boterea eta dirua. Hain nabarmenak ziren gizarteko arlo guztietan: politikan eta ekonomian. Desberdintasun sozial handiak zeuden», esan du. Ildo horretan, aipatzekoak dira erakusketa agertzen diren ugazaba handiak, eta, oraindik ere, zeresan handia dutenak: Baleztena-tarrak, Jaurrietarrak, Saguestarrak, Arraitz-tarrak edota Gaztelutarrak. Bestalde, nekazaritza jabego handiak ziren nagusi, eta lurrik ez zuten soldatepeko nekazariak ere ugari, batez ere, Erriberan. Ugariak ziren, halaber, nekazariaren protestak eta aldarrikapenak.

Mende bukaerako izpiritua

Ehun urte edo gehiago iraun duten Nafarroako enpresak omentzeaz landa, mende bukaerako izpiritua islatu nahi izan dute erakusketa. «Orekatua da, nekazaritza arloari ematen zaiolako garrantzia. Baina, aldi berean, garrantzi handia ematen zaio eguneroko bizitzaren beste esparru batzuei eta

biztanleriaren etxe barruko bizimoduari», azaldu du historialariak. Bizitzaren esparru guztiak hartu nahirik, erakusketa hamar eremutan banatu dute, eta horren lekuko dira erakusketa topatzen diren hainbat lanabes eta izkribu. Etxeak barrutik berreraiki dira: logela, sukaldea... Bai etxe txiroetan zein aberatsenetan. Batez ere etxera mugatua zegoen emakumearen eremu urria; hala ere, etxeko eguneroko lanaz gain, oso lan garrantzitsuak egiten zuten nekazaritzan. Halaber, Foruen defentsan mende bukaeran egindako protestak ere ageri dira, 1893-94ko Gamazada, hain zuzen; baita mende bukaeran egindako «industrializazio saiak», nahiz eta egitura produktiboa aldatzea lortu ez. Eginahal horretan aipatu dira Serapio Huizi eta Domingo Elizondo Irati trenaren sortzailea.

Kulturak ere hartu du bere lekua eta garai hartako izarrez landa, Julian Gaiarre tenorea eta Pablo Sarasate musikagilea, baziren kulturaren alde borrokatu zirenak. Horien artean Javier Ziga pintorea edo Arturo Kampion, Navarro Villoslada eta Erminio Doloriz idazleak. Aldi berean, euskarak larriki atzera egiten zuten mendearen bukaeran, eta hura sustatzeko ahalagintean aritu zirenak ere ageri dira. Euskara Elkarteak, intelektualek eta profesionalak osatua, euskal kultura eta euskara berreskuratzeko eta defendatzeko sortua.

→ Irene Arrizurieta
ARGAZKIAK: MIKEL SAIZ


• Jaiotzak XIX. mendean

► Nafar gehienak etxean jaiotzen baziren ere, hainbat iruindar joan den mendean ospitalean jaiotzen ziren. Emakumeek ohe antzeko honetan erditzen zuten. Medikuntza ere aurkikuntza esanguratsuak izan ziren XIX. mendearen bukaeran. Aspirina, supositorioak eta pilulak orduan sortu ziren, eta etxean landareekin egiten ziren sendagaien lekuko hartu zuten.




• Garbiketa egiteko harraska

► Joan den mendearen bukaera arte ura erreka, iturri eta iturbegietan zegoen. Etxeko harraskan lixua egiteko edo ontziak garbitzeko iturrietara lotura zuten ur-ponpen bidez egiten zen. 1985ean iruindarrekin Artetako iturbegitik jaso ahal izan zuten ura etxeetan, baina herrialdeko gainontzeko tokietara mende honen hasiera arte ez zen iritsi.




• Euskara' aldizkaria

► Sortu eta 1883an itxi zen. Nikasio Landak sortu zuen, eta euskal literatura eta kultura sustatzen zuten. Euskara atzera larriki egiten ari zela ikusi zuten. Aldizkarian aritu ziren Arturo Kampion, Iturriralde eta Suit, Estanislao Aranzadi edota Salazar Etxaide.



• Idaurra, nekazaritzan ezinbestekoa

► Silexeko idaurraren ordez diskodun idaurra XIX. mendearen erdialdera hasi ziren erabiltzen Nafarroako nekazariak. Europako beste herrialdeetan erabiltzen ziren makina mekanizatuak onartzea kosta egin zitzaizkien Nafarroako nekazariari. Idaurra gariaren lastoa eta alea jotzeko eta banatzeko erabiltzen zuten.



• Lisa-burdinak

► Lisa-burdinak burdinazkoak ziren, astunak eta tentuz ibili beharrekoak. XIX. mendean lisa-burdinak berotzeko makina horrek ikatzarekin funtzionatzen zuen eta hainbat dirudunen etxeetako jantziak lisatzeko burdinak berotu zituen.



• Guztiak biltzen zituen festa

► 1900. urteko San Ferminetako kartelak adierazten duen moduan, jalok ziren gizarteko maila guztiak biltzen zituen ekitaldi bakanetakoak. Aberatsak kafetean eta bingotetan eta jende xehea kaleko musikan.



• Umeen jokoak

► Bizikletak oso oinarritzkoak ziren. Dena dela, irularia zen jostailu ezagunena. Lurrean zulo handi bat egiten zen. Jokalariak 50 zentimetroko makila bat hartzen zuen eskuetan, eta beste eskuarekin irularia jaurtitzen zuten (10 zentimetroko makila bat). Beste jokalariek lasterka hartu eta berriro zulorantz jaurtikiz han sartzen saiatzen zen, baina aurreko jokalariek ez zion uzten tarteen beste makila sartzen ziolako.

Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

Lehoiak bi gurean

Euskal letretan izan ditugun Leon deiturako bi egileek, garaikideak izan eta hurbilean bizi izanagatik ere, ezer gutxi zuten amankomunean, ezpada euskarari zioten atxikimendua, eta inolaz ere, hegoaldeko baten bati halaxe iduri lekiokeen arren, ez ziren anaiak.



ALBERT LEON JAIOTZEZ EZ ZEN euskalduna; Bordelen 1883.ean sendi judutar baten altzoan sorturik, begietako gaitz batek jota, sei urte zituen zeharo itsuturik geratu zitzaigun, haatik, amak lehenbizi eta emazteak geroxeago lagunduta, ikasketetan aitzina egin zuen, eta letretan lizentziatu ostean, Vendée aldeko La-Roche-sur-Yon hiriko ikastetxean filosofia irakasle arizan zen 1909.ez geroz, non doktorego tesi bi apailatu baitzituen, bata *Les éléments cartésiens de la doctrine spinosiste sur les rapports de la pensée et de son objet* izenburupean, eta bestea, bereziki gure intereskoa den *Hélène de Constantinople* pastoralaren edizio kritikoa, Parisen 1909.ean argitara eman zuen 500 orrialdetik gorako liburuki mardula, Zuberoko herri antzerkiaren ikerketarako, Hérellearen lanekin batera, ezin utzizkoa dena. Azken honek Baionako lizeoan zuen ardura largatu zuenean, Leoni berari eskeini zioten katedra, eta ordutik genuen Adurreko hirian, langile nekazekin; hango *Cercle d'Etudes Euskartennes* izeneko lagunartean partaidea ahaidea zuen Hiriart-Urrutiaren eskutik sarturik, orduko beste euskaltzaleekin batera arizan zen -Urkixo, Lacombe, Broussain, Gavel, Landerretxe...-, euskarari buruz eta euskal herriari buruz ainitz kolaborazio ondu zituela, *Gure Herria* zein *RIEV* aldizkarian bereziki agertu zirenak. Albert Leon, Bordelen zendu zen 1953.ean, alaba baten etxean.

2. Leon Leon Hazparnen sortu zen 1896. urtean; Europako gerratean gudari parte hartu ondorean, Baionako apezgaitegian sartu zitzaigun, 1923.erako apaiz genuelarik; eliz bidaztiari sorterriko seminario txipian eman zion hasiera, irakasle urtebetez egonda; geroantzean ere, eta zeregin

berean, Baionan izan zen bost urtez, ondoren erreto gisa iharduteko hainbat tokitan; Donibane-Lohizunen 1929.etik, Arrangoitzen 1932.etik, Arnegin 1939.etik eta, azkenik, Uztaritzen 1941.etik; 1959.ean Baionako eliz-nagusi-ko ohorezko kalonje izendatu zuten, eta handik hiru urtera, 1962.ean, Uztaritzen zendu zitzaigun otsailaren 12an.

Berriz Arte izan zen Leon Leonek idazteko erabili zuen ezizena. Mendigurren & Izagirre tandem emankorrrak Ikastolen Elkartarako berriki ondu eskola-antologiarako ez du gure lapurtarra salbuetsi, eta *Ahate basak* narrazioarekin batera, haren gaineko berri eli bat ekarri ere: «Belaunaldiko azken ordezkariatzat jo dezakegu: apaiza, euskaltzalea, Hazparneko harrobi aberatsekoa, erlijio gaiak eta istorio errazak idatzi zituen euskara gozo, malgu eta aberats batean». Hiru dira Leonen lanetan bilbatzen diren hari nagusiak: kristautasun katolikoa, Frantzia nazione-ama, eta Euskal Herri idiliko garbia, funtsean, euskal fundamentalismoetako beste bat.

Hortaz, Leonen lehenbiziko lanak itzulpen elizkoiak izan ziren; 1929.ean *Jesu-Kristoren imitazioa* agertu zuen Belgikako Turnhout hiriko Brepols etxean, Larrekok berak 1930.eko Euskal Esnalea-an oparo baikor iruzkindurik: «Lan eder-eder bat egin digu Leon jaunak, neretzat, aspalditik irakurri dutan ederrera. Buruen-buru, euskar usain ederrean dago, ez du iduri erdaratik artua dela, eta ori da, alako lanetan bearrena, mami andiko gutunak ezerez ez du galdu euskararat itzulikatutik». Bigarren itzul-



pen pottoloa *Jesu-Kristoren gure Jaunaren Ebanjelio Saindua* izan zen, Uztaritzko Aubin baitan 1947.ean argitaraturik. Oraino hainbat meza-liburu agertarazi zituen Leonnek Vienako Ligugé-Aubin etxean: *Haurren meza* 1936.ean, eta *Meza Sainduaren emanaldi hirukoitza* 1947., 1949. eta 1953. urteetan. Erlijioa gaitzat hartuta, hainbat olerki ere ondu zitzaigun, *Apezgaiaren bizia* epigrafearen azpian *Gure Herria*-n atera zirenak.

Antzerkia ere Leonek jorratu arloa dugu: *Gure xokoan* (1926), *Marturianaren gaphotak* (1933), *Tomas ezkongei* (1934), *Herriko besta bihararen munean* (1937), *Mehetegiko nausia* (1938) edota *Haurrak azken hitza bere!* (1939); alabaina bereziki ezagun gerta dakigukeena La Fontaineren *Fables* alegien itzulpenak ditugu, *Gure Herria*-n lehenbizi eta aparteko liburu bezala geroago agertu zirenak - *Alegiak*, Baiona, 1960-; Orpustani jarraikiz, «Leur publication s'étend de 1928 à 1960, avec un premier lot d'une dizaine de textes rassemblés dans *Gure Herria* en 1951 sous le titre *Alegia deus* ez qui correspond exactement pour le sens à l'expression française *Mine de rien!*».

etorri ahalean

Patziku Perurena

Zelestinari bertsoak

Milla urte pasata bederatzireun.(bis) Aurten zazpigarrena broman pasa zagan.

Dama gazte polit bat ustez nekan lagun, gazte-gaztia zala egiña ezagun: mingañez alegría, amorioz illun!

Zelestina daduka dama orrek izena.(bis) Aranon jaio eta bertan bizi dena, Andres orreri kantak jartzen asi dena, bañan ez izan balitz alaja zuzena. Nik ola mendratzen det merezi duena!

Ezagunak dira oso, baina, ez denak, hogeitalau ba omen dira eta. Bertsoei beren grazia eta lekukotza ematen dioten protagonisten berri, ordea, inor gutxi daki.

ANDRES MITXELENA: Matias eta Joakina Anttoni Intxausperen seme, 1883ko otsailaren 18an jaio zen Maiertzeko Bordan. Aitaren aldeko aitona amonak: Pedro, ordurako hila, eta Mariana Mendiburu, sortzez Heletakoa (behenafarra). Amaren aldekoak: Inazio eta Tereza Larrea, Aranon bertan jaio eta bizi zirenak.

Honatz Joxemari Legarretak esanak: «Maiertzeko bordakuk famatuk zuten: «Kankarrotarrak». Jaiero burruka ibilli biar izate zuten «Kojo» arek, peligrasua zan ura; arek kutxillada emane in zion gue lengusu batei. Oriki anal guzik peligrasua zan, indarrare asko ta... baño, pixkat ean ezkeo, Inazio biñipiñ gaxtuna. Andres ez dut aittu izandu ola tñokin joka ibilliko».

Zelestinarekin muturtu, eta bi urtera, 1909ko urriaren 19an ezkondu zen Andres, Aranon bertan, Goizuetako Ezkarti baserriko Erramona Loiarterekin, eta lau seme alaba izandu Goizuetan bertan, Olaberrin bizi zirela: Andres, gero Bordazpiko izandua, eta bertsoetan poliki egiten zuena; Dolore, gaur oraindik Manoloren ama eta Estixuren amona dena; Fermina, Leitzako «Infernun» neskame zegoela «Kankarra» deitzen ziotena; eta An-

tonio, Leitzalarreko kanalean ari zela 1941an harripean hila.

Gure amak osaba propioa zuen Andres, eta hala aditu izandu diot: «Baten batek labana sartuta illa izan bar tzien ark, Fraintzin lanen ai zela. An andre zena, Erramona, ta gure atta zena Domingo, anai arrebak ittuen, ta biek yon emen ittuen Frantzira oñez, ta kusi zune-ko gurek in men tzien sospetxa txarra. Gero, andik denbon burura, eskazale frantzes bat emen tokatu, ta ark esan izandu men tzeon: baietz, basoko lanak pukatuta dirun partizioz itten asi zianen, zerbette jaleoa armatuta, baten batek labana sartu men tzila».

Lapurdiko Biriatur, Herriko Etxeko heriotz agiriak dionez, 1918ko abenduaren 27an gaueko 11etan hila zen Andres 35 urtetan, Andibar (?) izeneko etxean, auzoan bertako Jose Manuel Lekuona eta Jose Angel Zugarramurdi (?) laborariak testigu zituela. Baina, zertatik hil zen, jatik ere ez paperean.

ZELESTINA LEONET: 1887ko apirilaren 6an jaio zen mundura, sortzez eta bizitzet aranoarrak ziren guraso Joxebenardo eta Joaengraxi Iparragirregandik. Aitaren aldeko aitona amonak: Joanbaxta eta Marijoana Mitxelena. Amaren aldekoak: Fraixkuanttonio sortzez oiartzuarra, eta Mañulafraixka Leonet bertakoa.

Badirudi, Andresek bertsoak atera ondoren, jendearen esamesetatik ihesi, Bartzelona aldera egin zuela hanka Zelestinak; ezkondu han egin zen behintzat, elizako paperak dioenez, «Nª Señora de Belen de Barcelona» parrokiaren, 1911ko apirilaren 23an Juan Cuartero zelako batekin.

Joxemari Legarretak esan bezala, bazituen Zelestinak bi ahizpa: Rita 1885an jaioa, eta Teofila 1889an. Gero Txumitxenen bizitu zirela bai, baina Aranon zein etxetan jaiok ziren segurantziz ezin esan.

Ikus «Goizuetako Aranoko Hizkerak» liburuan, 238-41 orriak. Joxemari Legarretak emandako datu batzuk oker daude; geroztik zuzendu ditut, udal eta eliz paperak ikusi ondoan.

Ziria

• Motxorrosolo •

Liberal totalitarioak

GEHIENGORIK GABE DEMOKRAZIARIK EZ. LIBERALISMOZ MOZORroturiko totalitarismoa amets dutenen aztoramena ez da makala. Indar mediatikoak alde dutelarik, aise mantenduko dituzte oraingo pleguak. Egun, hor dira, ekialdean, indarraren erresumarenak zuzitzen. Ez da ikasbide txarra, atarian baitira.

Jose Luis Alzugarai

☉ Gure Txokoa-ko entrenatzailea

«Gipuzkoako ligan jarraituko dugu jokatzeko»

Berako Gure Txokoa neska futbol taldeak izan ditu garai hobeak. Euskadiko txapeldun izana hirutan, barne eztabaida baten ondoren jarraitzea erabaki badu ere, jokalariek batzuek utzi egingen dute taldea. Hortaz, heldu den denboraldian Gipuzkoako Ligan jokatu du, Euskadikoan jokatu beharrean. Mailaz jaitsiko den arren, Jose Luis Alzugarai entrenatzailea pozik dago.



● MIKEL SAIZ

Bere bihotzeko taldeak Bortzirietako herririk handienean duen egoitzan hartu gaitu Alzugarai. Luze mintzatu da zuzentzen duen taldeaz, eta neskek egiten duten lan ikaragarriaz.

■ **Zortzi urte daramatzazu Gure Txokoa nesken futbol taldea entrenatzen. Garai onak izan dituzuen moduan, orain arazoak dituzue taldea osatzeko.**

Liga Nazional Autonomikoan jokatzeko ari gara: Euskadi, Nafarroa eta inguruko autonomiekin, alegia. Oso ondo ibili gara, erdian bukatu dugu, eta gol gutxi jaso duen taldea izan gara. Arazoa da sei neskek utzi egingen dutela taldea.

■ **Zergatik alde egin nahi dute?**

Gauza asko pilatu dira: lana, ikasketak eta abar, eta batzuek adinean gora doaz.

■ **Zer erabaki zenuten joan den ostiraleko bileran?**

Goiko liga utziko dugu, baina Gipuzkoakoan jarraituko dugu. Alde egin nahi zuten sei nesketatik hiruk jarraituko dute. Goiko ligan jarraitzeko behar zen jendea kanpotik ekartzeko eta oso zaila da. Pozik gelditu naiz jarraitu egingen dugulako.

■ **Kirolean sexuen arteko berdintasuna sustatzen saiatu**

zara beti. Lan zaila aukeratu zenuen?

Beran bazen areto futboleko neska talde bat. Bazan neska pila gibeletik, eta horrela hasi ginen. Beran batek baino gehiagok esan zidan nora nindoa neskek futboleko jarriz. Dena hastea da. Duela zazpi zortzi urte hasi ginen, eta kanpoan gehien ikusi den taldea neskena izan da. Euskadiko hiru liga irabazi ditugu, eta badituzte Espainiako selekzioan bi neska, eta Euskadikoan hiru. Orain bertan hiru taldeetan 50 neska ditugu: goiko mailakoak, hondartzakoak eta txikiak. Horregatik nahi dut segitu.

■ **Zerbait aurreratu du jendearen mentalitatean?**

Badira bi bizitza mota: bizitza bizitzen dutenena eta arbole bezala irauten dutenena. Emakumezkoen futbolak hori du, hor dago, arbolak bezala, baina ez du bizitasunik. Nahi dut erran nesken futbolak arbolak bezala dagoela; bere bidean segitzen du, badirelako ni bezalako hogeitahogei hamar gizon gustuko dutenak, eta horiek mugitzen dute nesken futbolak. Federazioen aldetik oso laguntza gutxi da. Neskek ez dute dirurik irabazten. Pauso anitz eman behar dituzte mutilen parera ailegatzeko. Beno, ez dira inoiz ailegatuko ez da-

goelako interesik. Hor dago eta neskek meritu izugarria dute badakitelako ez dela hor deus ere heldu. Hala ere, antz aldatu da. Hurrengo Olinpiadetan izanen da emakumezkoen futbola, eta badira munduko eta Europako txapelketak ere.

■ **Kirola egite hutsagatik aritzen dira?**

Neskek badakite ez dutela sosik irabaziko. Japoniara joan zen Mainer Castillo eibartarra eta bueltatu da. Sos batzuek eman dizkiote, baina ezin da konparatu. Kirola egiten dute, ongi pasatu eta lagun antz egin, eta Euskadi mailan jokatzerako ailegatzeko dena, pozik.

■ **Zuk zer irabazten duzu?**

Alde materialetik irabazi deus ez, baina bizian gauza polita da jendearekin harreman ona izatea eta euren esker ona irabaztea.

■ **Eta galdu?**

Esan izan didate maila handiagoetan entrenatzeko mutilak, baina ez nau erakartzen. Pozik nago, hemen bizi behar dut, eta hemengoekin jarraituko dut.

■ **Herriak zuek egindako lana eskertu du?**

Ez dut uste. Berako herrian

soslaia

Kirolari amorratua da Jose Luis Alzugarai, bazter guztietan 'zikiro' goitzenaz ezaguna. Gaztatatik futbolari uztartua, hamabost urte darama neskek entrenatzen. Real Unionen jokatzeko lau-bost urte egin zituen, eta pala profesionalen ere aritu zen Bilbon, Añorga Gipuzkoako neska taldea entrenatzen hasi zen arte. Hura utzi, eta Berako Labiaga Ikastolan hasi zen lanean futboleko neska txikiak. Gure Txokoa duela zortzi urte dabil.

Lesakako Aceralia enpresan lan egiten duen arren, bere bizitza eta aisialdia kirolak eta familiak betetzen ditu. Neguko entrenamenduak eta bidaiak gutxi balira, udan futbol ikastaroak egiten ditu. Herriko bizia eta lasaitasuna eta mendian ibiltzea ditu gustoko. Egunero laisterka egitera joaten da, berak farrez dioen moduan kirola bere «andregai» omen da.

«Futboleko ez duela helbururik dio. «Nire bila ez da inor etorriko. Nesken futboleko dagoena gutxietsita begiratzen dute. Pena bakarra dut. Bortzirietan ez da ni bezain gutxi ibili den tipo bat. Ez naiz ibili Saratik harat eta Espainia ezagutu dut futbolagatik», azpimarratu du.

neskek egin dutena mutilek egin balute, beste gauza bat izanen zen. Badituzte bi neska Espainiako selekzioan jokatzeko dutenak. Pentsa ezazu bi mutil jubeniletan Espainiako selekzioan: sekulakoa litzateke. Baina neskek direnez, ez da deus gertatzen. Elkartaren aldetik laguntza guztiak baditugu, liga hau garesti samarra delako.

■ **Nolako maila dute Euskal Herriko neskek?**

Ona. Urte honetan Espainia-

ko Txapelketan finala Nafarroa eta Katalunaren artekoa izan da, eta Euskadi hirugarrena gelditu da. Neska onak badira, beti izan da. Gainera, asko hobetu da. Neska hobekiago entrenatzen da, tituludun entrenatzaileak ari dira sartzen, eta jendea joaten da ikustera. Orain hamar urte joaten zena matxismoagatik zen, eta neska-aren itxura ikustera.

→ Irene Arrizurieta



Nafar Kronika

Kike Diez de Ultzurrun

Gaur zortzikoa

Erabatekoa, «arront arrakastatsua», «historikoa» edo gisakoak erran edo idatziko dituzte zenbaitek, datorren ortzira leian eginen den greba orokorraren gainean aritzerakoan. Eusko delako erkidegoaz arituko dira, noski, eta Nafarroari dagokionean, ba, «erantzun zabala» aipatu eta kitto, arras hitz egokiak baitira nahiak eta ezinak altxatzeko. Konparazio batera, izenburu hori berbera -erantzun zabala- irakurtzeko parada izan genuen duela gutxi. Lizarra-Garaziko bidearen alde egindako ordubeteko lan uzteari zegokion albistean eta, gure erkidegoan, egia erran, talde deitzaileak kezkatu egoteko moduko erantzuna izan zuen deialdi hark. Orain, uste izatekoa denez, bertzela gertatuko da. Nafarroan ere, gaur zortziko deialdiarekin aunitzez ere jende gehiagok bat egiten du, bidezko aldarrikapenak baitira. Gauza jakina da, herrialdeko molde guztietako agintariak, nor bere mailan, saiatuko direla eguna behaztopatzen: Diputazioa zerbitzu minimoen bidez; gobernadoreak karrikan, eta, enpresariak zein hauen eskumakila kolpekariak -UGT eta CCOO- lantegietan. Hortaz, zenbait tokitan eta girotan grebari heltzeko badu meritua handia. Hala ere, sindikatu deitzaileek saiatu beharko lukete mezua eta protestaren edukia argi zabaltzen eta zenbait galderari garbi erantzuten. Esate baterako, grebarik egiten al zen hango erkidegoan enpresariekin zerabilzkiten negoziazioak ongi atera izatekotan? Han enpresariekin akordioa erdietsi izan balute, Nafarroan egiten al zuten deialdirik? Han konformatuko ote liriteke hemen UGTk eta CCOOk sinatutakoarekin? Badituzte zortzi egun hori guztia ongi eta taxuz lantzeko eta Nafarroarako mezu berezi batzuk botatzeko, egoera ez baita berbera han eta hemen. Beraz, lurralde bakoitzari jokamolde ezberdina dagokio. Bertzenaz, badirudi noiz egin, noiz jo aitzina, noiz pausa, noiz jokatu, han erabakitzen dutela, haiei komeni zaienean, noski, eta, euskal sindikatuek, hemen Nafarroan, badute behar hainbateko indarra euren ahotsa entzunarazteko. Ea, beraz, gaur zortzikoak benetako erantzun zabala duen.

gure aukerak

KONTZERTUAK

- ▀ **Iruñea:** Eduardo Albeniz piano jolearen emanaldia, 20:00etan, Erraldoien Txokoa.
- ▀ **Etzarri-Aranatz:** Sakanako Iheitza musika taldearen emanaldia izanen da etzi, 19:30etan, plazan.
- ▀ **Berriozar:** Berriozarko soinuak lana aurkezteko kontzertua etzi, 19:00etan, Mendialde eskolan.
- ▀ **Iruñea:** Moliendo Café Trio jazz taldearen kontzertua asteazkenean, 23:00etan, O'Connor's tabernan.
- ▀ **Burlata:** Gestionik eta La Patera taldeen kontzertua izanen da bihar Euskal Herria penan.
- ▀ **Iruñea:** Deabruak Teilatuetan taldeak joko du heldu den ostegunean Terminal tabernan, 21:30etan.
- ▀ **Urdiain:** Sarasate Laukoteak ganbera musika kontzertua eskainiko du etzi, 12:15etan, elizan.
- ▀ **Iruñea:** Sarasate Orkestrak kontzertua eskainiko du gaur, 20:00etan, Gaiarre antzokian. Beethovenen pianorako lan batzuk, eta R. Straussen *El Burgués y el gentilhomme* interpretatuko ditu.

ERAKUSKETAK

- ▀ **Iruñea:** Maiatzaren 28a arte ikusgai izanen dira Pintzel galerian Iñigo Matxainen lanak.
- ▀ **Zangoza:** Brasilgo lurralde gabekoen mugimendua islatzen duten Sebastian Saldoren argazkiak ikusteko aukera etzi bukatzen da. Erakusketa Kultur Etxean dago.

ANTZERKIA

- ▀ **Barañain:** Compañía XXL taldeak *Melilla tuvo que ser. El cumpleaños nacional* lana oholtzaratuko du datorren ostegunean, 20:00etan, Udaleko ekin-

tza anitzetarako aretoan.

- ▀ **Arbizu:** Trokolo taldeak *Tantaz tanta* lana taularatuko du gaur, 18:00etan, frontolan.
- ▀ **Antsoain:** Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoaren emanaldia izanen da gaur, 10:00etan, udal kiroldegian.
- ▀ **Erriberri:** T'Ombliigo teatro taldeak *La fiesta del abuelo mudo* lana antzertuko du datorren asteartean, 18:30etan, udaletxean.

BESTELAKOAK


- ▀ **Iruñea:** Tomas Urzainki abokatuak *Especialidad en el derecho de Navarra* hitzaldia eskainiko du gaur, 19:30etan, Nabarrera Kultur Aretoan.
- ▀ **Iruñea:** Sanduzelaiko Gaztaroa elkarteak mendi ibilaldia antolatuko du etziko. Mendizaleak Hiru Errege Mahaira igoko dira. Izena eman nahi duenak 948-143419 telefonora

deitu behar du gaur 19:30etatik 21:00etara.

- ▀ **Etzarri-Aranatz:** Dieta orekatuaz mintzatuko da Ana Karmen Huarte dietetikan aditua datorren ostegunean, 19:30etan, Kultur Etxean.
- ▀ **Lizarra:** Jesus Urrea Valladolideko Museoko zuzendariak *Eskultura Velazquezen garaian* hitzaldia eskainiko du Gustavo de Maeztu Museoa, gaur, 20:00etan.

Arestiren liburutegia

Castelao nos



—Os señoritos non lles gusta a choiva. Pero gústanlle as patacas...

Jaunek ez dute euria atsegin. Baina patatak bai dituzte atsegin...